

Ezezagunaren eta posiblearen kartografia artistikoak



*Nor gara? Zer irakatsi/ikasi nahi dugu? Nola egin dezakegu? Askotan, mundua zatiketaren bidez ezagutzen saiatzen gara, zati txikitan banatzen eta zenbait irizpideren arabera sailkatzen. Gauza bera gertatzen da gure burua aurkeztu eta nor garen erakusten saiatzen garenean. Jatorria, adina, sexua... Baina badira definitzen gaituzten beste alderdi batzuek ere, gu geu bihurtzen gaituztenak, eta seguruenik *komunitate* bihurtzen gaituztenak. Ikusten zailagoak edota ezezagunagoak diren alderdiak dira, horregatik mapa-bisual edo kartografia artistikoetan biltzen saiatuko gara.*

Helburuak

- Irati Gorostidiren sormen- eta ikerketa-lan eta -prozesuetara hurbiltzea.
- Elkar ezagutzea, gure iruditeria partekatzea, eta norbanakoaren eta taldearen identitateari buruz hausnartzea.
- Kartografia ikaskuntzarako metodologia eta tresna gisa ulertzea.
- Eskola-kurrikulumari eragitea, ikasleen errealitate espezifikoari zuzenean lotutako eduki berriak proposatuz.

Aipamenak

Irati gorostidi Cuerpos ácidos <https://www.youtube.com/watch?v=6oU1GFL5X0>

<https://www.centrohuarte.es/habitacion-cuerpos-acimos-gorputz-airisak/>

Archiveras del humo, tabakalera <https://makusi.tabakalera.eus/minimakusi?mm=39&locale=eu>

Modelos de cartografías <https://www.revistadearte.com/2012/11/20/artistas-contemporaneos-se-cuestionan-los-sistemas-de-representacion-en-la-exposicion-cartografias-en-caixaforum/>

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

Galdera irekiak taldea abiarazteko.

- Nola ordenatu ohi dugu armairu bat? Nola antolatzen dira artelanak museo batean? Eta gure argazki-karpetak ordenagailuan? Instagramen?
- Kartografia baten irudi bat proiektatzen dugu (*ikus erreferentziak). Zein informazio ematen digu? Zer elementu biltzen ditu? Zein lotura ikusten ditugu elementuen artean?

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Banaka: gure buruari buruz hitz egiten duten elementuak bildu (argazkiak, linkak, marrazkiak, testuak, objektuak...), gure gustuei, interesei, erreferente estetiko eta kulturei, kezkei, jakintzei... buruz hitz egiten dutenak.
2. Bildutakoak nola lotu daitezkeen pentsatuko dugu: Instalazio gisa, bideo bat, kartel bat, testu bat... Gure nortasunaren kartografia izango da hau.
3. Gelan, kartografiak partekatu: ikasle bakoitzak 5 minutu izango ditugu gure azalpena egiteko.
4. Aurkezpenetan errepikatzen diren gauzak arbelean idatziko ditugu. Ideia, gai, erreferente... multzo horri *Imaginario kolektiboa* deituko diogu.

5. Denen artean, multzo horretatik bat aukeratuko dugu, eta ikasgelan landuko dugun hurrengo gaia izatea proposatuko dugu. *Zergatik interesatzen zaigu guztioi? Zer gehiago jakin nahi dugu horri buruz? Zer erreferentzia ditugu?...*

Ondorioak eta lerro irekiak

- Gai hau eskolako programazioan txertatzeko zer egin beharko genukeen hausnartuko dugu (irakaslearekiko elkarrizketak, lan-egutegia, ebaluazio-sistema...)
- *Gure komunitatearen bideo bat egitea gustatuko litzaiguke?* Egin dezagun gidoi bat.